

TTAKUNENEA

Euskara ardatz hartuta

'Euskararen egoera herrian; nondik gatoz, non gaude eta nora goaz' mahai ingurua egin dute Ttakunenean / 4

TXINTXARRI

Berdintasuna, bolo-bolo herrian

Udalak "parekidetasunean formatuta dagoen gizarte langile bat" kontratatuko du; feministentzat, hori ez da nahikoa / 6-7

Espainiak Saharari egin dion "azken traizioa" salatzen elkartu dira herritarrek plazan / 2

Herriko negozioak Ticket Bai sistema euskaraz erabiltzera deitu ditu udaleko Euskara Zerbitzuak / 3


Euskal dokumentalen zikloa itxiko dute 'Tipularen sehaska kanta' eta 'Aita Mari' ikus-entzunezkoek / 5

Euskadiko Mendi igoeren denboraldiari ekin dio Aitor Manso gidari lasarteoriatarrek / 10

Buruntzaldea IKTko igerilariek bost domina erdietsi dituzte Euskal Herriko txapelketetan / 11

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu hilaren 27an:
02:00etan
03:00ak
izango dira



txitxardin
BRASA ETA TRADIZIOA

ZURE OSPAKIZUNAK BEREZIAK
IZANGO DIRA GURE JATETXEAN

Ezkontzak | Jaunartzeak | Ospakizunak

Shu
CASA HUMADA

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA
943-04 62 97 | 662 06 66 79
info@casahumada.com

2car

apirilak 19ra arte

Continental
The Future in Motion

16" edo 17" lanta
2 gurpil 4 gurpil
20€ 50€

18" edo handiagoak
2 gurpil 4 gurpil
35€ 80€

Ekipatu zure kotxea
Continental gurpilekin
eta aukeratu opari bat

Zumaburu 18
Lasarte-Oria
Tel: 943-36 24 63

Espainiak Saharari egin dion "traizioa" salatzeko

Espainiako Gobernuak Saharari egindako "traizio berriaren aurka" elkartu dira herritarrak Okendo plazan. Tomas Arruti Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeko kideak eta Ailem Etleimidi sahararrak hitz egin dute ekitaldiaren amaieran

Txintxarri

Elkarretaratzea egin dute lasarteoriatarrek Okendon, Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak deituta. Espainiako Gobernuaren azken adierazpenen ondotik etorri da deialdia; Pedro Sanchez Espainiako presidentek azaldu du Mendebaldeko Sahara Marokoko eremu autonomo bihurtzea dela Sahara eta Maroko arteko gatazka gainditzeko aukera "errealistena". Jarrera hori salatu eta Saharari elkartasuna erakusteko batu dira plazan herritarrak.

Euskal Herri mailako deialdia izan da, eta komunikabidetara ere adierazpen bateratu bat bidali dute. Hori bera jaso du TXINTXARRI aldizkariak. Hor azaldu dute Mendebaldeko Sahara ez dela Marokoko lurralde osotasunaren parte, deskolonizatzeko zain dagoen lurralde ez autonomoa baizik eta Nazio Batuek autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzen diotela. Gaineratu dute Espainia lurraldeko potentzia administratzailea dela, eta aldebakarreko adierazpena edo hirugarrenekiko akordioa alde batera utzita, Espainiak ezin duela bere erantzukizuna bertan behera utzi. Azaldu dute Mendebaldeko Sahararen legez



Saharari elkartasuna adierazteko elkartu dira Okendo plazan. ISAAC FARRÉ

kanpoko okupazioa babestean, Espainiako Gobernuak lege-estaldura ematen diola nazioarteko erakundeek salatutako giza eskubideen urraketei eta haien baliabide naturalen espolioari.

Nazioarteko ordena demokratiko eta bidezkoaren esanahia ere ekarri dute oharrera: "Herri guztiek dute bakea, elkartasuna, garapena eta autodeterminazioa izateko eskubidea. Horrek esan nahi du benetako subiranotasuna erabili behar dutela euren aberastasun eta baliabide naturalen gainean, eta

askatasunez ahalegindu behar direla euren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala lortzen". Gaineratu dute horrek ezabatu egiten dituela determinazio askerari jarritako oztopoak, okupazio kolonial eta atzerritarren menpe bizi diren herriek duten eskubidea da. "Horixe da Saharako Herriaren nahia".

Hala, "okupatzaile marokotarrari" laguntzeko "Espainiaren legez kanpoko jarrerak", zailtasun gehigarriak dakartzkio NBEk Mendebaldeko Sahararako duen bake prozesuari.

Asintomatikoek zein kasu arinek ez dute etxean geratu beharko

Martxoaren 17tik 23ra 55 kutsatze diagnostikatu dituzte Lasarte-Orian, aurreko zazpi egunetan baino hiru gehiago

Txintxarri

Espainiako Osasun Ministerioak eta autonomia erkidegoek hauxe adostu dute: hilaren 28tik aurrera ez dutela konfinatuta geratu beharko COVID-19a duten pertsonak, baldin eta haien kasuak

arinak badira edo sintomarik ez badute. Edonola ere, "arretaz" ibili beharko dute, maskara jantzita eraman eta pertsona zaurgarriengana ahalik eta gutxien hurbildu. Era berean, birusa atzemateko probak

kolektibo kalteberei egingo dizkiete, hala nola adinekoei, haurdunei eta immunoeskasia nahiz beste patologia batzuk dituztenei.

Lasarte-Orian 55 kutsatze detektatu dituzte martxoaren 17tik 23ra, aurreko zazpi egunetan baino hiru gehiago. 2020ko martxotik hona 5.868 kasu zenbatu dituzte gure herrian, horietatik herena baino gehiago aurtengo urtarrilean: 31 egunetan 2.120 positibo erregistratu zituzten, eguneko 68 pasatxo.



David Mateos eta Agustin Valdivia, Tximistarreta parkeko sarreran. TXINTXARRI

Komun publiko bana Oztaran auzoan eta Tximistarretan

Aseos Publicos Ibericos enpresari adjudikatu dizkio lanak udalak, 67.000 eurotan; hiru hilabeteko epea izango dute

Txintxarri

Herritarren eskaerari erantzunez, Lasarte-Oriako Udalak komun publikoaren sarea eraikitzen darrai. Askatasuna eta Atsokabarreko parkeetan, Zabaleta Berriko Basotxo plazan, Loidi kalean eta Basaundi auzoan daude bost martxan. Orain, Tximistarreta parkean eta Oztaran auzoko Plazaola bideko sarreran ezarriko dira bi berri, Agustin Valdivia alkateak eta Udaleko Zerbitzu Publikoetako sailburu David Mateosek azaldu dutenez. "Komun publikoak ezartzea erabaki genuenean, herrian zehar jende asko igaro den leku estrategikoetan kokatzeko erabakia hartu genuen. Egingo ditugun bi berri hauekin bukatuko dugu sarea", adierazi du alkateak.

Lasarte-Oriako Udalak Aseos Publicos Ibericos enpresari esleitu dizkio lanak eta 67.000 euro gehi BEZeko aurrekontua

du kontratuak. Ondo bidean, hiru hilabetetan eraikiko ditu bi komun publiko horiek.

Mateosen hitzetan, erabilera mistoa duen komun itxiak jarriko dituzte, "irisgarritasun arazoak dituzten pertsonen egokitutakoak", eta kanpoaldean, pixalekuak. Horrez gain, Oztaran auzoko zerbitzuak bizikletak garbitzeko gunea izango duela ere nabarmendu du.

HMJP planaren bigarren fasea

Hiri Mugikortasun Jasangarriako Plana lantzen ari da udala, eta berriki iragarri du bigarren faseari ekin diola: batetik, korporazioko alderdiek txostenaren aurretiazko bertsioa jaso dute, eta ezohiko udalbatzar bat egingo dute hilaren 31n, hori eztabaidatu eta aztertuko; bestetik, egun horretan bertan, 18:00etan Antonio Mercero gunean, herritar guztiei zuzendutako saio ireki bat egingo du.

Ukrainarrei laguntza emateko ordutegia aldatu dute

Martxo hasieratik Ola kalean dagoen Ludoteka erabiltzen ari dira zenbait herritar, Errusia eta Ukrainiaren arteko gerrako biktimizei laguntzeko materiala biltzeko. Jakinarazi dutenez, ordutegia moldatu egin dute. Hau da: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara. Gogorazi dute elikagaiak, medikamentuak eta

garbitasun pertsonalerako produktuak behar dituztela, eta baita boluntarioak ere.

Orain arte 101 kutxa bete higiegi produktu bidali dituzte Ukrainara, elikagaiak jositako 95, botikak daramatzaten 45, hamasei arropa kaxa eta bestelako materialak dituzten bost. "Harremanetan gaude ukrainarrekin, eta badakigu jasotzen ari direla bidaltzen ari garen guztia". Ludotekan ez ezik, Urbil merkatalgunean ere bilketa masibo bat egin zuten, eta beste bat antolatzen ari dira.



Lasarte-Oriako komertzioek Ticket Bai sistema euskaraz erabil dezaten nahi du udaleko Euskara Zerbitzuak. TXINTXARRI

Fakturak euskaraz egin ditzaten nahi du udalak

Egoitza fiskala EAEn duten negozioek Ticket Bai sistemaren bidez egin beharko dute fakturazioa. Sistema hori euskaraz erabiltzea hizkuntza horren normalizazioan "beste urrats bat" egitea dela azpimarratu du Euskara Zerbitzuak

Txintxarri

Ticket Bai sistema euskaraz instalatzeak, hizkuntza horren normalizazioan beste urrats bat egiteko aukera ematen duela azpimarratu du Euskara Zerbitzuko lehendakari Jon Antxordokik. Horretarako, fakturaziorako erabiltzen diren aplikazio informatikoak euskaraz lan egiteko gai izan behar duela ohartarazi du. Herriko

komertzioek Ticket Bai euskaraz erabiltzera animatu nahi ditu, eta horretarako, gutun bat bidali du udalak negozio guztietara, egitasmoak euskararen normalizazioari ekar diezazkioken onuren berri emateko.

Antxordokik, gogorarazi du herriko negozioetan euskara txertatzen laguntzeko diru laguntzak eskaintzen dituela

Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak urtero, eta hemendik aurrera, Ticket Bai sistema euskaraz instalatzea ere diruz lagunduko duela, 300 euroko mugarekin.

Gai horri buruzko informazio gehiago nahi dutenentzat honako telefono zenbakia erabilgarri jarri dute: 943-37 61 84; bertara deitu behar da hitzordua hartu eta zalantzak argitzeko.



NEURE KABUZ
JULEN BASTERRA

Benetako bakea

Bizitza on bat izan nahi duzu? Simplea da: ondo pentsatu. Bizitza konplexu, zail edo txar baten bila zabilta? Argi dago: ireki itzazu pentsamenduaren bitartez munduaren gatazka guztien fronteak, has zaitez fronte horietako lubaki bakoitzean pentsamenduaren bitartez borrokatzen eta zure bizitza kaos bat izango da. Gudari fina izan naiz ni, aitortzen dut. Non dago, baina, bakea? Gerraren ausentzian? Edo, agian, bakea zure gorputzaren tenpluak gordetzen duen isiltasunean aurkitzen da... Eta, gaur, nora begira zaude? Zer pentsamenduri egin diozu lekua hain goibel kalera ateratzeko? Norenak dira ahots hauek?

Ez dakit konturatu zaren, baina, ahots gehienak aspaldi jaio ziren burugabe batzuen ahotsen oihartzunak besterik ez dira. Oihartzun haiekin jaio ginen zu eta ni. Ez dakit nork atera zuen gaiari ez dakit zeinek erantzun zion. Eta, ez dakit nortzuek hura sinetsita, ez dakit zeintzuekin eztabaidatzen hasi ziren. Alajaina, gu jaio ginenean ere zarata hura gure artean zen! Bai bai, eta ezetz asmatu gu hitz egiten hasi ginenean zer izan zen noizbehinka gure ahotik erreproduzitzen hasi zena? Halaxe da lagunok, hitz egiten hasi ginenean oihartzun haiek ahoskatzen hasi ginen gu ere. Ene bada! Orduan, sarritan oihartzun hauen parte gara! Burugabeak! Zelako burrunba hedatu den munduan barrena...

Egia da, egunero hamar mila ahotsen oihartzunekin eztabaidatzen jarraitzen dugun burugabeak gara. Bakarrizketan aritzen gara maiz. Ika-mikan, noizean behin, gaiaren eta pertsonaren arabera. Eta ez da harrizkoa kaosaren seme-alabak baikara. Aiene! Nola ez da ba mundu honetan tragediarik jazoko? Gaizki pentsatetik gaizki jokatzera pauso erdia dago eta! Bale, ados gaude aurrekoarekin, gaizki pentsatzen dugun burugabeak gara. Baina, orduan, batek baina gehiagok galdetuko dit: nola pentsatzen da ondo?

Jaun andreok, hortxe dago koska, ondo nola pentsatzen den asmatzean. Zorionez, naturak bihoztun sortu gintuen. Tamalez, bihotzak uneoro pentsatzen du. Eta hau aldatzea ezinezkoa den arren, bihotzaren mugimendu etengabe hauek (pentsamenduak) bizitzen ari garen oraingo unera mugatu behar ditugu, hau baita ongi pentsatzea. Aitzitik, momentu honetatik haratago doazen pentsamendu guztiek bihotza mindu egiten dute, gaizki pentsatzea hori baita. Hortaz, isilarazi oihartzunak, entzun zure bihotza, momentu honetan duen taupada burura ekarri. Pixkanaka, praktikarekin, bihotzarekin modu egokian pentsatzen ikasiko dugu. Bai, ez da erraza, baina gure baitan dago dena: benetako guda eta benetako bakea.

Ttakun 30 urte **Zozheta!**

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara? **æk**

KORRIKA 22 PRODUKTUAK zozkatuko ditugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena martxoaren 31 baino lehen

HITZKIN

harpidetza@ttakun.eus helbidean edo 646 82 44 66 (whatsapp)

BEGIRALE LAN-POLTSA (Udako Txoko eta udalekuetarako)

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali eskaera-orria beteta maiatzaren 2a baino lehen.

BALORATUKO DIRA: -Begirale edo zuzendari titulua. - EGA edo baliokidea den agiria. - Ikasketak. - Lan esperientzia.

BEHARREZKOA: -Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskaera orria: www.labur.eus/ttakunbegiraleak2022
begiraleak@ttakun.eus | Geltoki 4 Lasarte-Oria | 943-37 14 48

Herriko euskararen egoeraz mintzatu dira

Lasarte-Oriako euskararen egoeraz hitz egiteko mahai ingurua egin dute Ttakunenean. Ane Labaka izan da moderatzailea, eta Joxe Mari Agirretxe, Iñaki Arruti, Bea Egizabal, Maider Galardi, Uxue Loinaz eta Mari Karmen Ormazabal izan dira hizlari gonbidatuak

Txintxarri

Korrika Kulturalak antolatuta, *Euskararen egoera herrian; nondik gatoz, non gaude eta nora goaz* solasaldia egin dute hilaren 22an. Luze eta zabal hitz egin dute gaiaz gonbidatuek, bakoitzak bere bizipenetatik, eta horietako zenbait zertzelada bildu ditu TXINTXARRI-k artikulu honetan. Euskararekin zein harreman duten, eta hizkuntza hori lasarteoriatar gisa nola bizi duten galdetu die Ane Labakak sei gonbidatuei saioari hasiera emateko, eta Maider Galardik hartu du hitza. Gazte lasarteoriatar eta kazetari gisa hitz egin du. Azaldu du euskara berarentzat "tresna" bat dela bizitza hizkuntza horretan egin ahal izateko. Txikitatik euskaraz egin du; etxean, ikastetxean, lagunartean eta gaur egun lanean ere "euskaraz eta eukaratik" ari da *-Berria* egunkariko langilea da.

Uxue Loinazek Muntteri AEKko irakasle eta gazte lasarteoriatar hitz egin du gero, eta azaldu euskaraz "presentzia handia" duela bere bizitzan; Lasarte-Oria herri erdalduna izanda ere, arlo guztietan euskaraz bizitzeko aukera duela.

Ttakun Kultur Elkarteak lehendakari Mari Karmen Ormazabalek kontatu du, eskola garaian, "zortzigarren mailara arte" eta institutu garaian



Ttakunenean egin dute Korrika Kulturalak antolatutako egitasmoa. TXINTXARRI

gaztelaniaz ikasi zuela, eta euskara etxetik jaso duela. Euskararekin "harreman estuagoa" 18 urtetik aurrera egin zuen, aisialdiko begirale aritu zen garaian.

Iñaki Arrutirentzat euskara teknikaria euskara ez da tresna bat, komunitate bateko kide gisa bizi du hizkuntza. "Etxetik, modu oso naturalean" jaso du euskara. Eta Ormazabalek bezala, institutuko garaia ekarri ditu gogora: "Gatazka handiz bizitu genuen, gu ginen *vasquito*-etako batzuk, eta gaztelaniaz egiten hasi ginen. Unibertsitate garaian etorri zitzaidan kontzientzia linguistikoa".

Bea Egizabalek ere ikasketak gaztelaniaz egin zituela kontatu du, eta hizkuntzarekiko kontzientzia gaztelaniazko ikastetxe

batean piztu zitzaioela. Ttakun Kultur Elkartearekiko harremana ere jarri du mahai gainean eta euskara borroka pertsonal gisa bizi duela: "Nire laneko hizkuntza euskara da, baina hortik kanpo gaztelania nahi baino gehiago erabiltzen dut".

Joxe Mari Agirretxe *Porrotxek* azaldu du AEKko gau eskolan hasi eta unibertsitatera arteko ikasketak gaztelaniaz egin zituela. Hori hala izanik, gaur egun euskaldun sentitzen bada "hautu kontziente bat" egin duelako dela. Nabarmendu du Lasarte-Oria gaur egun euskaraz bizitzeko aukera asko daudela, nahiz eta badakien oraindik ere asko dagoela egiteko.

Aurkezpenen ostean, instituzioetako ordezkari

zuzendu zaie Labaka; Ormazabali eta Arrutiri. Galdetu die erakundeetan zein den orain arte egindako bidea.

Komunitatearen izateko nahiari egin dio azpimarra Arrutik, eta nabarmendu, udaleko euskara teknikari aritu den urteetan, udalak erantzukizun sozialari forma emateko ahalegin bat egin duela: "Lanaren norabide bat ikuspegi komunitarioa mantendu eta elikatzea izan da, helburu nagusia beti izan delarik euskararen erabilera gehitzea. Hori lortu da, gaitasunen igoera ikaragarria gertatu da".

Ttakunen sorrerari begira jarri da Ormazabal gero. Kontatu du instituzioek erantzuten ez zuten behar batzuk asetzeko sortu zela elkarte eta sorreratik gaur egun arte, modu xume batean Lasarte-Oriako etxe gutzietara iritsi dela, izan haur zein gazteentzako aisia eskaintzaren bidez, edota TXINTXARRI aldizkariari esker, besteak beste.

Gazteen begirada

Galardi eta Loinazen txanda izan da ondoren. Galardik 2018. urtean aldizkari honetarako idatzitako *Lasarte-Soria* iritzia artikulua gogoratu du Labakak, eta galdetu die gazte bezala nola bizi duten euskara. Galardik uste du gazteei balio bat duela transmititu behar zaiela, hortik etorriko delako komunitatearekin kohesioa eta Euskararen erabileraren gaineko diskursoa moldatu behar dela ere azpimarratu du. Loinazen aburuz, egungo gazteek "euskara hibrido" erabiltzen dute; euskaraz hitz egiten hasi arren, gaztelania tartekatzen dutela kontatu du. Egozten zaien hizkuntzarekiko kargari ere egin dio erreferentzia: "Gazteen artean euskararen erabilera sustatu nahi bada, hizkuntzak eroso behar du izan".

Agirretxe eta Egizabalei zuzendu zaie jarraian moderatzailea eta proposatu die euskal kultur gilearen egoeraz hitz egitea. Egizabalek hartu du hitza, eta azaldu, euskal kulturaren inguruan "endogamia" bat sortu dela, eta arazoa euskara "zentro" bihurtzean dagoela. Agirretxek gogoratu du euskara erdigunerako ekartzeko gauza asko ongi egin direla herrian; Euskararen Maratoia, besteak beste. Norberaren behar eta emozioak asetzeko euskarazko espazioak sortzea garrantzitsua da pailazoarentzat. Jakinarazi du Andoainera joan behar izaten dutela entseatzera, herrian horretarako lekuri uzten ez zaielako: "Udalaren aldetik ez dago bitartekorik". Kultur eragileen berri izateko gune baten falta somatzen du ere.

Feministotik ere bideratu du Labakak solasaldia, eta Galardi, Loinaz eta Egizabal hirukoa gonbidatu du euskalzaletasuna eta feminismoa lotzen dituzten edo ez argudiatzera. Galardik argi du bere feminismoa euskaratik eta euskaraz bizi duela baita hori hala izateak zenbait muga dakartzala ere. Loinazentzat euskara eta feminismoa elkar lotuta joan dira beti, nahiz eta denbora luze sinetsita egon zen euskaltzalea zenak feminista behar zuela izan (eta alderantziz), eta gerora konturatu, baldintza hori ez dela derrigorrezkoa. Egizabalek uste du "intersektionalitatea" behar duela euskarak.

Etorkizuneko erronkei begira amaitu dute mahai ingurua.



Ikus mahai ingurua osorik ondoko QR kodean

Elkarteen eta boluntarioen lana aitortzeko dantza egin dute

EIBEK deitutako Elkar+Ekin Dantzan aldarrikapen ekintzarekin bat egin dute 40 inguru lagunek

Txintxarri

Euskal Herriko hamaika udalerritan batu ziren hilaren 20an dantzaren bidez, elkarten eta boluntarioen lana aitortzeko, "zaindu eta formatu" behar dituztela aldarrikatzeko eta

komunitateko ekintzetan herritarren parte hartzea sustatzeko.

Elkarteen Ikerketa eta Berrikuntzarako Ekosistema elkarteak (EIBE) deituta, Erketz EDTk, Kukuka Antzerki eta

Dantza Eskolak eta Plaza Dantzak parte hartu zuten jardueran. Oinei eragiten hasi aurretik, Erketzeko David Egizabalek EIBEK prestatutako manifestua irakurri zuen. Ondoren, Okendo plazan elkartutako 40 bat lagunek dantzatu zuten Olatz Salvadorrek eta Bihotx taldeak egindako *Martxa baten lehen notak* abestiaren moldaketa muxiko erara. Gutxi iruditu zitzaizen bakararra eta beste bi pieza ere dantzatu zituzten.



Elkarteen eta boluntarioen lana aitortzeko egin dute dantza. TXINTXARRI

Ez ahazteko dokumentalak

Euskal Herrian iragan hurbilean jazotako gertakari batzuk errepasatu dituzte Okendo Zinema Taldeak antolatutako euskal dokumentalen zikloko lehen emanaldiek. Haiei esker, batzuek gogoratzeko eta beste batzuek ezagutzeko parada izan dute

Maitane Aldanondo - Iñigo G. Sarobe Ekuatorea igaro du Okendo Zinema Taldeak antolatutako euskal dokumentalen zikloak. Joan den astean ekin zioten *Bolante baten historia* eta *Apaiz kartzela* dokumentalekin, eta, ostegunean, *Hijos de dios* lanaren txanda zen. Lasarteoriatarren jakin-mina piztu dute orain arteko emanaldiek, iaz aurrera eramandako zikloak egin bezala.

Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparra*-ren desagertzea eta haren familiak egin duen bidea kontatzen du *Bolante baten historia* lanak. Dokumental horrek ireki zuen zikloa, hilaren 17an. Zuzendarietako bat, Iban Toledo, eta kontakizuneko protagonistaren anaia, Eneko Etxeberria, etorri ziren kultur etxera, ikus-entzuleekin solastera. Emanaldia hasi aurretik, OZTk berriki hil den Ioritz Apaolaza herritarra izan zuen gogoan, "kide eta lagun" izandakoa; urte ugari lan egin zuen zinemagintzaren sektorean.

Lau hamarkada, bila

Naparraren familiak 42 urte daramatza bere gorpua bilatzen: gurasoek ekin zioten bideari, Patxik eta Celesek, eta Eneko anaiak jarraitzen du sendiaren borroka, gertatutakoa argitzeko helburuz. 1980 ekainaren 11n "desagerrarazi" zuten Jose Miguel, anaiak solasaldian behin eta berriro errepikatu bezala. **K o m a n d o A u t o n o m o** Antikapitalistetako kidea zen Naparra, eta errefuxiatu gisa zeramatzan pare bat urte Ipar Euskal Herrian. Lau hamarkada geroago, haren gorpua ez dute topatu, eta oraindik ez dakite nor izan zen erantzulea, baina argi esaten dute espainiar Estatuak zerikusitu zuzena izan zuela.

Iñaki Alforjak eta Iban Toledok zuzendu dute *Bolante baten historia*. Azken hori etorri zen kultur etxera, eta azaldu 2017an ekin ziotela ikus-entzunezkoa produzitzeari. "Ezagutzen nuen kasua lehendik ere, eta garai horretan Naparraren gorpua aurkitzeko indusketak egiten ari zirenez, bolo-bolo zebilen gaia komunikabideetan. Iñakiri deitu, eta gaiari buruzko ikus-entzunezko bat egitea erabaki genuen; bera jarri zen harremanetan Enekorekin". Etxeberriak "oso eskertuta" jaso zuen zinemagileen deia, eta "gustura" dago filmarekin: "Esperientzia gogorra izan da, baina lan izugarri ona egin dute, gurea bezalako kasuak ezin dira isilduak izan, eta horretan laguntzen du honek".

Etxeberriak aitortu duenez, anaia etortzen zaio gogora jaiki eta berehala, "egunero", duela 42 urtetik. "Lau hamarkada baino gehiago daramatzagu borrokan, eta atsedean hartu nahi dugu, anaiari egin ziotena argitu eta haren errautsak baserrira ekarri, gurasoenekin batera egon daitezen. Argia behar dugu".

Apaizak, preso

Bi egun geroago, larunbat iluntzean, *Apaiz kartzela* dokumentalaren txanda izan zen. Denboran 50 urte atzera egin eta Zamorako espetxearen barruan eratutako apaiz kartzelaren historia kontatzen du lanak. Munduan halako presondegi bakarra izan zen,

NAPARRAREN DESAGERTZEA ETA HAREN GORPUAREN BILAKETAZ MINTZATU ZIREN LEHEN SAIOAN

Francisco Franco diktadoreak sortu zuen Vatikanorekin sinatutako konkordatu baliatuta. Ziega haietan 53 apaiz egon ziren, gehienak, 35, bizkaitarrak, sei-zortzi gipuzkoarrak, eta gainerakoak, Madril, Bartzelona eta Galiziakoak. Frankismoaren errepresioa euren sermoietan salatzeagatik edo langile klasearekin bat egiteagatik hamar urtetik gorako zigorrak ezarri zizkieten batzuei. Haietako gehienek lekukotza eta bertan bizitakoak –torturak, zigorrak, ihesaldi saiakera...– jasotzen ditu ikus-entzunezkoak, eta jada itxita dagoen kartzelara bueltatuko diren lau lagun kontakizunarekin josi. Horrez gain, Kote Camachoren animazioek "grabatzerik ez zen zenbait gauza" erakusten dute.

Horma haien barruan gertatutakoa eta leku hartara eramane zitezuten gertakizunak ahaz ez daitezten egin dute dokumentala Oier Arantzabal, David Pallares eta Ritxi Lizartza zuzendariek. Proiektzioa amaituta, azken horrekin eta 1968-1973 urteen artean bertan preso egon zen Xabier Amurizarekin hitz egiteko parada izan zuten bertaratutakoek.

2014an Javi Barajasi bururatu zitzaion gertakari horiek pantailaratzea, artean, Lizartza ez zen proiektuaren parte eta aitortu zuenez, ez zuen apaiz kartzelaren berri. "Kontatu beharreko pasarte" iruditu zitzaion. Protagonista gehienak bizirik egoteko "zortea" izan dute eta erraz lortu dute denek parte hartzea. Amurizak gogoratu zuenez, proposamena egin zientean "utopia" iruditu zitzaion eta ez zuen "gehiegi sinetsi" gertatuko zenik; Lizartzak berak ere zalantzak izan zituela



Xabier Amuriza eta Ritxi Lizartza izan ziren larunbateko emanaldian. TXINTXARRI



'Bolante baten historia' dokumentalak ireki zuen zikloa. TXINTXARRI

aitortu zuen, sei-zazpi urte behar izan baitituzte lana osatzeko. 2019an espetxera bueltatzeak "emozio handia" eragin zion bertsolariari. Horrenbeste urtetan itxaron ondoren, azken eguna kosta zitzaion gehien. Lizartzaren hitzetan "ume txikiak bezala" kexaka aritu ziren bezperan lokalizazioak egitera joan zen taldearekin batera bertaratzen utzi ez zitelako.

Luze aritu ziren hizketan, pasadizoak eta bizipenak kontatzen. Grabazioaren gorabeheren artean, espetxean sartzeko baimena Fernando Grande Marlaskak eman ziela zehaztu zuen Lizartzak, baita

MENDE ERDI GEROAGO ORAINDIK KONTATU GABE ZEGOEN APAIZ KARTZELAREN PASARTEA

bat baino gehiago hura gabe sartzeko prest zegoela ere.

Bi emanaldi gehiago

Tipularen sehaska kanta filma izango da emango duten hurrengo, hilaren 26an. Lander Garrok zuzendu du dokumental hori, Sare herritarren enkarguz; euskal presoek espetxeetan bizi dituzten egoeretatik abiatu, eta kartzela sistema bera jartzen du auzitan. Hurrengo egunean, 27an, *Aita Mari* proiektatuko dute, zikloko azken ikus-entzunezkoa: Javi Julio kazetariaren lanak erakusten du zenbait boluntarioren jarduna, gerratik eta gosetetik ihesi ari diren migratzaileei laguntzeko.

Bi saioak 20:00etan hasiko dira, eta sarrerek 6 euro balio dute. Sarean (ticketak.kutxabank.es) zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Emanaldien ondoren solasaldiak egingo dituzte zuzendariekin.

Egoerak berdin jarrai ez dezan

Lasarte-Oria da, Hondarribiarekin batera, berdintasun teknikaririk zein sailik ez duen 10.000 biztanletik gorako Gipuzkoako udalerrri bakarra, legez horretara behartuta egon arren. "Parekidetasunean formatuta dagoen gizarte langile bat" kontratatu duela iragarri du udalak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Bost silaba ditu *berdintasuna* hitzak. Erraza da ahoskatzen, baina askoz zailagoa lortzen. Gero eta baliabide gehiago, orduan eta aukera gehiago gizonen eta emakumeen arteko parekidetasuna erdiesteko. Norabide horretan, Gipuzkoan, ia herri guztiek dituzte berdintasun teknikari eta sailak, bakarka edo mankomunatuta, gutxi batzuek izan ezik. 10.000 biztanle dituztenen artean, bi daude: Hondarribia eta Lasarte-Oria. Gure herrian eskaera hori berria ez izanagatik, inoiz baino ozenago ari da entzuten azkenaldian, batez ere, kaleetan: horren erakusgarri, Emakumeen Nazioarteko Egunean erdigunean barrena egin zuten manifestazioa, herriko mugimendu feministak deitutakoa; ehunka herritar jarri ziren pankartaren atzean.

Horrez gain, martxoko udalbatzarrean landu dute gaia, eta oposizioko alderdiek mozio bateratu bat aurkeztu dute: berdintasun teknikari bat kontratatzea eta pertsona horrek 2021-2025 aldirako indarraldia izango duen Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Plana egikaritzea eskatu, eta korporazioak onartu egin du. Udal gobernuak iragarri berri du "parekidetasunean formatuta dagoen gizarte langile bat kontratatzearen alde" egin duela, hori izan zelako 2018an sortu zuten postua, eta ekainaren 13an hasiko dela lanean.

Esan bezala, berdintasunaren aldeko aldarriak eta eskaerak gero eta maizago entzuten dira herrian. Aldizkari honek ere jasotzen ditu, eta egoera nola dagoen jakite aldera, herriko mugimendu feministako kide Amaia Amianorekin eta Maider

Galardirekin zein Lasarte-Oriako Udalarekin hitz egin du.

Hasteko eta behin, mugimendu feministako kideek adierazi dute "tranpa" egin duela udalak, eta ez duela berdintasun teknikari bat kontratatuko, "gai horietan formatuta dagoen gizarte langile bat baizik". Azaldu dute ez dela gauza bera. Adibide bat: "Gizarte langile batek ezin du Berdintasun Plana egikaritu, eta teknikariak, aldiz, bai. Gainera, teknikari baten mahaitik pasako lirateke udaleko gainerako alorretako lanketak, genero perspektibari dagokionez minimoak behintzat bete daitezten". "Martxoaren 8a eta gero interpelatuta sentitu direla erakutsi nahiko dute agian, eta gero eta herritar gehiago eskatzen ari garena eman digutela, baina ez da horrela". Eragileko kideen iritziz, Lasarte-Oriako egoera "oso larria" da, eta udalak erantzukizuna hartu behar du, berdin jarrai ez dezan: "Proposatzen duenak ez du arazoa konponduko, eta ezin dugu ahaztu pertsonen bizitzak daudela jokoan. Egoera larria da".

"Berdintasunari buruzko prestakuntza duen gizarte langile bat" hautatu duela zehaztu du udalak, eta ekainaren 13an lanean hasteko prest dagoela. "Kontu bat argitu behar da: alor horretan ez dago berdintasun teknikari titulaziorik; parekidetasunari buruzko formakuntza duten profil tekniko desberdinak daude. Gizarte langile trebatu baten aldeko aukera egin dugu, 2018an

UDALETXEAK LEGEZ BEHARTUTA DAUDE BERDINTASUNA LANTZEKO EGITURAK IZAN ETA INDARTZERA

sortu genuen plaza berriaren oinarrietan jasotzen den bezala, eta aurten behin betiko betetzea espero dugu". *Montoro dekretua* delakoa ekarri du gogora: "Izugarri murrizten du postu berriak sortzeko gaitasuna; berri bat sortzeko beste bat amortizatu behar dugu, praktikan". Lanpostua "aldi baterakoa" izango da, urtebete eta 3 urte bitarteko programa kontratua, "berdintasun plana garatzeko". Bere lanak hauek izango dira: berdintasun plana eta behatokia garatzea, kanpainak egitea eta herritarrek kontzientziatzea.

Feministek zehaztu dute hori berez iaz egin behar zuela udalak. "Bilera bat egin genuen haiekin, eta esan ziguten parekidetasun gaietan ikasketak zituen behargin bat kontratatzeke partida bat sartuko zutela aurrekontuetan, baina 2021a bukatu zen eta ez zuten egin. Gezurra zen". Udalak argudiatu du "gainkarga izugarria" izan duela Langileen Sailak pandemia hasi zenetik: "Badirudi ahaztu egin dugula, baina 2020a urte oso konplexua izan zen, baja asko bete behar izan genituen prozedurekin aurrera egiteko. Iaz ere eragin berezia izan zuen horrek, eta ezin izan genuen gizarte langilea kontratatu, bajen kudeaketagatik eta lan poltsetan zein Lanbiden behar ziren profilak aurkitzeko zailtasunengatik".

EAEko Berdintasun Legea

EAEko Berdintasun Legea 2005etik dago indarrean, eta martxoaren 3an berriro Eusko Legebiltzarrak. Erreforma horren aurretik, dagoeneko zehazten zuen toki administrazioek alor hori lantzeko egiturak sortu eta indartu beharko zituztela, banaka edo mankomunatuta.



Lasarte-Oriako Mugimendu Feminista ekintzak egiten ari da hilabeteotan, berdintasunaren

Gipuzkoako udalerrietan hori nola lantzen ari diren ikusteko, Aldundiak egin duen Berdintasun Baliabideen Mapa kontsultatu du TXINTXARRI-k. Lasarte-Oria grisez agertzen da, azalpen mezu honekin: "Berdintasun gaietan GFArekin koordinatu gabe". Inguruan dituen herri gehienek more kolorea dute, "egitura egonkorak" dituztela adierazteko Aldundiak erabili duena, eta Urnietak, urdina: 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrientzako Berdinbidean programan parte hartzen ari da: helburua da ezaugarri demografiko horiek dituzten udalerriei "aholkularitza eta dinamizazioa" ematea. Hondarribia ere grisez agertzen da, eta Lasarte-Oriak bezala, ezin du Berdinbidean parte hartu, 10.000 lagun baino gehiago bizi direlako bakoitzean.

Udalak azpimarratu du baduela "berdintasuna garatzeko funtsezko tresna bat": Sexuen Arteko Bizikidetzarako Emakumearen

"BERDINTASUNA GARATZEKO TRESNA BAT BADUGU: EMAKUMEEN ZENTROA"

Zentroa, 2012an sortutakoa. "Hainbat kanpaina egiten ditu parekidetasuna eta genero indarkeriaren aurkako borroka sustatzeko". Esate baterako, hauek: ikastetxeetako ikastaro eta tailerrak; menopausia tailerrak ambulategian; doako sexu aholkularitza zentroan bertan eta Gaztelekuan; eta sentsibilizazio kanpainak martxoaren 8an (Emakumearen Nazioarteko Eguna), maiatzaren 17an (Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna), ekainaren 28an (LGTBI Pertsonen Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna) nahiz azaroaren 25ean (Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeke Nazioarteko Eguna). Horrez gain, "eraso sexistatik gabeko jaietarako kanpaina" ere egiten du.

"Ekainean, gizarte langile berria sartzen denean, eremu hori asko indartuko da, berdintasun planean jasotzen diren ekimenak abian jartzen hasiko baita". 2021eko aurrekontuan 152.760 euro bideratu zituen berdintasuna sustatzera udalak: Emakumearen Zentroaren kontratua eta alor hori bultzatzera bideratutako jarduerak, hain justu. Kopuru totalaren (35.645.336 euro) %0,43



afera gizarteratzeko. Martxoaren 8ko manifestazioarekin ehunka lasarteoriatarrek bat egin zuten. TXINTXARRI

izan zen. Feministen aburuz, "huskeria bat".

Mugimendu feministako kideek behin eta berriro azpimarratu dute udalak kontratatzen duen pertsona berdintasunean formatuta dagoen gizarte langile bat baldin bada, ez duela eskumenik izango 2025era arteko indarraldia duen berdintasun plana egikaritzeko. "Gaur egun geldi dago, eta, gainera, eskasa da, diagnostikoa ez delako aproposa: txostena egiteko kontratatu zuten enpresari ez zioten nahikoa diru eman eta herriko eragileekin ez zuten hitz egin, ez soilik gurekin, ezta beste askorekin ere". Aurrekoa 2016tik 2019ra artekoa izan zen, eta hori ere kritikatu dute feministek. Esan dute Soraluzeko udaletik hartu eta Lasarte-Oriara ekarri zutelara, "herriaren errealtaterara egokitu gabe".

Zentzu horretan, udalak adierazi du "garrantzitsua" dela azpimarratzea plana "talde politiko guztien adostasunarekin" onartu zela, eta txostena prestatzeko prozesuan "parte hartu nahi izan zuten eragile guztiek" egin zituztela ekarpenak: "Ezin dugu inor udalarekin lan egitera behartu".

"Alderdi politikoetako kideek ezer gutxi egin dezakete: udalak

esan zien beharrezkoa zela berdintasun plan bat onartzea gero langile bat kontratatzeko, eta horri zer esango diozu, ezetz? Edo kreditu aldaketa egiteari? Zentzu horretan, harrapatuta daude", esan dute Amianok eta Galardik.

Afera gizarteratzen

Iazko abendu amaieran sinadurak biltzeko kanpaina bat jarri zuen martxan mugimendu feministak, erakusteko gaiak kezkatzen zirenak ez zirela *cuatro y el del tambor*, herritar gutxi batzuk, alegia; udalarekin egindako bilera batean entzun behar izan zuten bezala. Hiru egunetan (abenduarien 30a eta martxoaren 4a zein 8a) 800 atxikimendu inguru bildu dituzte, eta jende gehiagorengana iristeko asmoa dute. "Prest gaude udalarekin hitz egiten jarraitzeko, gugana jo dutenean lagundu diegu: pentsa, bilera batean baino gehiagotan galdetu digute ea pasako ote genien gure protokoloa

"BERDINTASUN PLANA GELDI DAGO ETA ESKASA DA, DIAGNOSTIKOA EZ DA APROPOSA"

haiek bere horretan erabiltzeko; fundamentu horrekin ari dira berdintasun alorreko gauzak egiten". Atea erabat itxi ez badute ere, erabaki dute amaitu dela udalarekin konponbide bateratu bat bilatzeko epea, eta beste bide batzuk urratzen hasi dira: "Gaia gizarteratzen ari gara, diskurtso bat eraikitzen, eta udalaz gaindiko erakunde batzuen atea joko dugu".

Udalbatzarrean, hizpide

Kaleko aldarriak iritsi dira udal korporazioko alderdien belarrietara. Oposizioan dauden guztiek (Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos, EAJ-PNV eta EH Bildu) mozio bateratu bat aurkeztu zuten martxoaren 10eko udalbatzarrean: eskatu zuten berdintasun teknikari bat kontratatzea eta pertsona horrek herriko berdintasun plana aurrera eramatea. Onartu egin zuten proposamena, lehen aipatutako alderdien aldeko bozkekin eta udal gobernuaren (PSE-EE) abstentzioarekin. Lourdes Acevedo alkateordeak zein Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun zinegotziak azaldu zuenez, bi arrazoigatik ez zuten alde bozkatu: udala ikerketa bat egiten ari delako barne antolaketa zehazteko, eta bukatu arte itxaron behar delako postu berriak sortzen

hasi aurretik; eta bestetik, espero duelako korporazio osoa "norabide berean" hastea lanean, "feminismotik eta elkarrekin".

Amianoren eta Galardiren iritziz, behin baino gehiagotan udal gobernuak erabili izan duen "argudio tranpatia" da hori: "Feminismoaren banderapean edozer gauza sartzen baduzu, denok batera joango gara, baina norantz? Hori da garrantzitsuen".

Horren guztiaren atzean "udal gobernuaren borondate politiko falta" dagoela uste dute: "Esaten dute kontratazioaren eta plana gauzatzearen alde daudela, baina gero ez diote arazoari serio heltzen. Guk ez dugu beste konponbiderik ikusten: plan hori aurrera eramango duen teknikari bat jarri behar du horretan lanean, lehenbailehen".

Genero perspektiba

Udalak berdintasun teknikaria eta saila "oinarrizko urratsa" litzateke, "baldintza minimo bat", genero parekidetasunaren bidean lan egiteko. "Horrekin bakarrik ez litzateke guztia konponduko, baina abiapuntua litzateke". Azaldu dutenez, pertsona horrek ez luke soilik plana abian jarriko: "Emakumeen Zentroari buelta bat emango lioke, Gizarte Zerbitzuetako beharrak identifikatu, berdintasunaren ikuspuntua gainerako alorretan txertatu hala nola Hezkuntzan, Hirigintzan edo Euskararen... Gaur egun, ez dago inor udaletxean hori guztia egingo duenik".

Gizarte Zerbitzuen egoerari buruz ere hitz egin dute mugimendu feministako kideek. "Kolapsatuta daude, pandemiaren aurretik ez ziren iristen eta orain zer esanik ez: bien bitartean, gero eta herritar gehiago zuzenean ari dira joaten Donostiara edo Errenteriara, badakitelako Lasarte-Orian ez dituztela artatu ere egingo". Eraso matxistei erantzuna ematerako garaian "protokolo aproposik" ez dagoela deitoratu dute: "Erasotua izan den pertsona bati erantzuna emateko ez dago nahikoa baliabiderik, hori egiteaz arduratuko diren pertsonak ez dute formakuntza nahikorik lehen

"TENIKARIAK GENERO PERSPEKTIBA EZARRIKO LUKE UDALAKO ALOR GUZTIETAN"

puntua betetzeko ere: 'Ez ezazu zalantzan jarri kontaktzen ari zaizuna', hain zuzen". Gehitu dute haien belarrietara "gero eta kasu eta kexa gehiago" iristen direla, baina "icebergaren punta" direla: "Datuak ez ditu behar bezala jasotzen udalak, gure sareak mugak ditu, zenbaitek ez dute haien egoeraren berri ematen beldurreratik...".

Bi herritarren aburuz, "bidezkoa" ez dena da gizarte langileei errua botatzea udalak. "berak kudeatzen ditu zerbitzu horiek, eta beharginak pandemia iritsi aurretik ere lanez lepo zeuden, iritsi ezinik, ba imajinatu orain nola dauden. Bien bitartean, premiazko laguntza behar duten pertsona asko eta asko arreta gabe daude; noizbait hilik agertuko da bere erasotzailearekin batera bizitzera behartuta dagoen eta Gizarte Zerbitzuen zerrendetan izena emandako norbait, eta orduan kontzentrazio bat antolatuko dute".

Egoerak alderatzen

"Sozioekonomikoki, antzekoak dira Lasarte-Oria eta Hernani, eta han bost berdintasun teknikari dituzte; Irunen sozialistek gobernatzen dute, eta alarde baztertzalea duten arren, egiten dituzte berdintasuna sustatzeko egitasmo esanguratsuak, eta baita Pasaian ere, adibidez", zehaztu dute. "Aitzakia bat erabili izan du udalak, idazkariak edo kontu hartzaileak eragozpen txostena jartzearena postu berri bat sortzeari, baina beste udal askotan ere erredaktatu dituzte, eta hala ere, aurrera jarraitu dute bidearekin". Udalak berretsi du bi horiek direla "legezkotasuna eta aurrekontu zorrozatasuna" betetzen ari dela zaintzen duten bi figurak, eta egin ditzaketela txosten horiek, "legearekin bat ez datorren neurriren bat onartu behar bada".

Beste herri batzuetako kideekin hitz egiten dutenean, "lotsa" sentitzen dute Amianok eta Galardik, berdintasunaren alorrean Lasarte-Orian dagoen egoeragatik. "Pandemia garaian hasi ginen gai hau sakonago aztertzen, eta orduan ikusi genuen nolako *pastela* zegoen: eraso, salaketa, urruntze agindu, bortxaketa eta bestelakoei erantzuteko, institutuan lanketa egiteko, genero perspektiba ezartzeko nahiz prebentzio lanak egiteko berdintasun teknikaria eta saila behar ditugu".

UDAKO TXOKOAK 2022

KONTU KONTARI KOLOREZTATUKO DUGU UZTAILA!

EUSKARAZ,
HERRIAN ETA
ELKARREKIN!

SUSPENSEA FANTASIA MUSIKALA
KIROLA MARRAZKI BIZIDUNAK
BIDAIAK UMOREA AKZIOA ABENTURA



IZEN EMATEA
MARTXOAREN 28TIK
MAIATZAREN 6RA

WWW.LABUR.EUS/TXOKOAK2022

LEKU
MUGATUAK!

EI TXIKI, ADI!

HH3-HH4

(2017 ETA 2018

BITARTEAN JAIOK)

JARDUERAK

PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK.

IPUINETATIK ETA JOLASETIK ABIATUTA

ASMAKUNTZA PLASTIKOA.

GORPUTZ ADIERAZPENA ETA SOINUAREKIN

JOLASEAN ARITUKO GARA.



(2014 ETA

JOS

GORPU

BIDEZ MUNDU

TALDE

ADI! LH

4 EGUN, ASTIGA

*UZTAILAREN 4TIK 1

ASTIGARRAGARA ETA HILABET

*160 HAMABOSTALDIA, UZTAILA

*2. HAMABOSTALDIA, UZTAILA

141 € | 150 € (GOIZTXOKO

ORDUTEGIAK ETA PREZIOAK

HILABETE OSOA: UZTAILAREN 4TIK 29RA (25A JAI)

1. HAMABOSTALDIA: 4TIK 15ERA

2. HAMABOSTALDIA: 18TIK 29RA (25A JAI)

ORDUTEGIAK	SEME-ALABA BAKARRA	2 ANAI-ARREBA		3 ANAI-ARREBA	
HH3-HH4 HILABETE OSOA	10:00-13:00 09:00-13:00	106 € 142 €	96 € 132 €	86 € 122 €	
HH5-LH6 HILABETE OSOA	10:00-13:00 09:00-13:00	116 € 152 €	106 € 142 €	96 € 132 €	
HH3-HH4 1. EDO 2. HAMABOSTALDIA	10:00-13:00 09:00-13:00	1. 60 € 2. 55 €	1. 55 € 2. 50 €	1. 50 € 2. 45 €	
HH5-LH6 1. EDO 2. HAMABOSTALDIA	10:00-13:00 09:00-13:00	65 € 85 €	60 € 78 €	60 € 80 €	55 € 73 €

*TTAKUNEKO BAZKIDEEK DESKONTUA IZANGO DUTE UDALEKUE TAKO PREZIO GUZTIETAN.

GOIZTXOKO ZERBITZUA

09:00ETATIK 10:00ETARA

JANGELA ZERBITZUA

15:15AK ARTE.

HILABETEA: 115€

HAMABOSTALDIA: 65€

*LEKUA GELDITUZ GERO EGUN SOLTEAK HAR DAITEZKE.

ORDAINTZEKO MODUA

KONTU KORRONTETIK EGINGO DA KOBRANTZA.

ESPAZIOAK TTAKUNENEA ETA ORIARTE

LH5-LH2

(2016 BITARTEAN JAIK)

JARDUERAK

AKTIROLA SAIOAK.

ITZ ADIERAZPENAREN

BERRI BAT ERAIKIKO DUGU.

JOLASAK, IRTEERAK...

1. ETAPA LH2 (AUKERAN)

ARRAGARA JOATEKO AUKERA IZANGO DUZUE!

15ERA UDAKO TXOKOETAN. 18TIK 22RA UDALEKU ITXIETAKO TXANDA TXIKIA

TEA BUKATZEKO, UDAKO TXOKOETAN BERRIZ! 201 € | 230 € (GOIZTXOKOAREKIN)

AREN 4TIK 15ETA + ASTIGARRAGA 175 € | 195 € (GOIZTXOKOAREKIN)

AREN 18TIK 22RA ASTIGARRAGAN ETA 29ARTE, TXOKOETAN

(GOIZTXOKOAREKIN)



INFORMAZIO GEHIAGO:

TEL: 943-37 14 48

AISIA@TTAKUN.EUS



HI, GAZTE!
ANIMA HADI! LH3-LH6
(2010 ETA 2013 BITARTEAN JAIK)

JARDUERAK

ABENTURA ETA KIROLA.

NATUR EKINTZAK.

TALDE JOLASAK ETA PROBAK.

TAILERRAK, IRTEERAK ETA

JARDUERA BEREZIAK.



Arazo teknikoak, denboraldi hasieran

Euskadiko Mendi igoeren denboraldia hasi da. Hilaren 19an, Andatzatik Aiara igoera lehiatu da. Aitor Manso herritarrak proban parte hartu du; arazo teknikoak medio, bosgarren postuan amaitu du lasterketa; CM Promo mailan, hirugarren sailkatu da

Txintxarri

Andatzatik Aiara igoerak Euskadiko Mendi igoeren denboraldiari hasiera eman dio. Jarleku bakarreko zein bikoitzeko 44 ibilgailu lehiatu ziren eta horien artean izan zen Aitor Manso herritarra eta bere BRC B49 ibilgailua.

Joseba Iraolak irabazi zuen lasterketa marka berria ezarri, minutu eta 39'328 segundo. Mansok sailkapen orokorreko bosgarren postua eta CM Promo mailako hirugarrena lortu zuen.

Gidari gazteak azaldu digunez, nahiz eta saiakera bakoitzean denbora hobetu, lasterketa ez zen espero bezala joan. "Proba baino egun batzuk lehenago, Joseba Iraolaren gomendioak jarraituz ibilgailuan moldaketa batzuk egin genituen. Entrenamenduak eta lehen igoera ofiziala konfigurazio horrekin egin genuen, baina kotxea ez zebilen ondo", adierazi du Mansok.



Aitor Manso, Andatzatik Aiara igoera probako momentu batean. AITOR MANSO

Azken igoerarako, aldatutako guztia leheneratu egin zuten. Alabaina, Lasarte-Oriako gidariak arazoak izan zituen abiadura kakarekin.

"Azken igoera baino lehen guztia genuen modura jartzea

lortu genuen eta ibilgailuak ongi erantzun zuen. Baina bidean martxan palanka trabatuta geratu zen, bosgarren martxan. Horrela egin behar izan nion aurre igoerako azken zatiari", jakitera eman du.

Ezbeharrak gertatu arte, denbora ona egiten ari zen herriko gidaria. Horregatik lehen postuetan egotea espero zuen. "Ordura arte azkar nindoan eta arazoa izan ez banu lehen postuetan egongo nintzateke. Baina azkenean, ahal izan nuen bezala amaitu eta bosgarren geratu nintzen", aipatu du.

Lan ona egin

Aitor Mansok hirugarren urtez ari da mendi igoeretan parte hartzen. Iaz ibilgailua aldatu arren, lehen postuetan sailkatu zen Euskadiko zein Gipuzkoako txapelketetan.

Denboraldiko lehen probako irristaldia gainditu eta aurten ere lehiari egoteko prest dagoela onartu du: "Ongi ikusten ditut neure burua eta ibilgailua. Eskarmentu gehiago dut eta Euskadiko txapelketan ahal dudana hoberean egitea dut helburu".

Beraz, 2022 urteko denboraldiari begira BRC B49 ibilgailuari aldaketarik egin ez diola aipatu du herritarrak.

2021 urteko denboraldiaren antzera, azken urteetan nagusi den Joseba Iraola izango du aurkari nagusia lehen postuetako lehiari. Alabaina, bizkaitarra gaintzea zaila izango dela argi du herritarrak: "Iraola beste maila batean dago. Bere ibilgailuak puntakoak dira eta zaila da horien aurka lehiatzea. Baina proba batean eta bestean puntuak lortuz gero, bere aurretik egoteko

aukerak egon daitezke. Ikusi beharko da nola doan denboraldia".

Pauso bat gehiago

Lasarte-Oriako gidariak aurreratu duenez, Euskadiko txapelketan zazpi probatan parte hartuko du eta Nafarroan ere bi igoera egiteko asmoa du. Aurten, gainera, bere ibilbidean pauso bat gehiago eman nahi duela ere aitortu du: "Espainiako lehiaketaren batera aurkeztuko gara. Bertako maila ikusteko. Posible da Galiziako proba bat izatea".

Bien bitartean, bere hurrengo igoera prestatzen ari dela aipatu du. Hitzordua apirilaren 9an izango da, Opakura igoera. Bertan lehen postua lortzea du buruan. Joseba Iraola Euskadiko txapelkunak ez du proban parte hartuko. Hala ere, lehia gogorra izango dela iragarri du.

"Joseba Iraolak Espainiako Kopako proba bat du egun horretan eta ezingo da lehiatu. Ez dagoela baliatuz, lehen postua eskuratzea posible izango da eta txapelketarako puntuak gehitu ahalko ditut. Baina lehiakideak nola iristen diren ere ikusi beharko da", onartu du.

AURTEN ESPAINIAKO TXAPELKETAKO PROBA BATEAN PARTE HARTZEA DU BURUAN MANSOK

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Urnieta KE Larunbata. 18:30. Michelin kirol gunean.
GOINGOEN MAILA, IGOERA
Universidad de Deusto - Ostadar SKT Larunbata. 19:00. Zubietan, Donostia.
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA
Behobia CD - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Artia, Iruñen.
OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Danena KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Elbarrena, Zizurkilen.
JUBENIL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Danena KE Larunbata. 16:30. Michelin kirol gunean.
Igeltegi de Donosti CF - Ostadar SKT B Larunbata. 19:00. La Salle, Donostia.
OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Ostadar SKT - Tolosa CF Igandea. 14:05. Michelin kirol gunean.
KADETE 1. MAILA, IGOERA
Texas Lasartearra CF - Mariño CD A Larunbata. 13:00. Michelin kirol gunean.

KADETE 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Arrupe Chaminade CD A Larunbata. 14:45. Michelin kirol gunean.
Kostkas KE A - Ostadar SKT A Larunbata. 13:15. Matigoxotegi, Donostian.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - IDK Pari Berri Donibane Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
2. MAILA
Goierrri FS - Eguzki ISU Leiohok Larunbata. 18:00. Aldiri kirol., Urretxun.
GAZTEEN MAILA
Eguzki AF - Laskorain KE Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOIA
SENIOR 2. MAILA
Ostadar SKT - Drunkat Hoops Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR 3. MAILA
Mondragon Unibertsitatea - Ostadar SKT (atzeratutako partida) Ostirala. 20:00. Musakola kirol., Arrasaten.

Ostadar SKT - Zalburdi Debasket Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - Internacional CD Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Easo Sorgintxulo Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Navarvoley Fercor Serigrafias - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Berriozar kirl., Iruñean.
KADETE MAILA
Hernani KE 2 - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Hernaniko kiroldegia.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz RT - Eibar RT Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
EUSKAL LIGA
Cominter Tisu Hernani - Vithas Gaztedi RT Larunbata. 16:00. Landare Toki, Hernanin.

IGERIKETA
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTKo igerilariak Alebin Ligako 6. jardunaldia lehiatuko dute. Larunbata. Majori kirol., Ordizian.
KZL LIGA
Buruntzaldea IKTKo alebinek Kirol Zehaztasun Ligako 4. jardunaldian parte hartuko dute. Larunbata. Majori kirol., Ordizian.
XAKEA
3. MAILA
Lasarte-Oriako Taula Xake Klubak taldekako Gipuzkoako Txapelketako jardunaldia du. Bidasoa Fiantxeto 2019 E izango du aukari. Larunbata.
PILOTA
PROMOZIO TXAPELKETA
Artega II - Alberdi Ostirala. 22:00. Izarraitz pil., Azpeitian.
UDABERRI TXAPELKETA, FINALA
Intza - Hernani Larunbata. 11:30 (2. partida). Michelin kirol gunean.

GIMNASTIKA
ESKOLARTEKO TXAPELKETA
LOKEko gimnastek Eskolarteko A eta B mailako bigarren saioa izango dute. Igandea. 09:45. Azpeitian.
BENJAMIN TOPAKETA
LOKEko gimnastek benjamin mailako topaketan parte hartuko dute. Larunbata. 16:00. Carmelo Balda kirol., Donostian.
JUDO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Alebin mailako LOKEko judoek Gipuzkoako Txapelketako lehen saioa lehiatuko dute. Igandea. 09:00. Agustina Otaola pil., Errenterian.
ATLETISMOA
ESKOLARTEKOA
Ostadar atletismo saileko infantil zein alebin mailako gaztetxoek Eskolarteko jardunaldia dute. Larunbata. 10:45. Antonio Elortza belodromoa, Donostian.
LASTERKETA
AZKOITIA-AZPEITIA
Hainbat herritarrek AzkoitiaAzpeitia Maratoi erdian eta 8,6 km. proban parte hartuko dute. Igandea. 16:15/16:30 Azkoitian.

Berdinketa landua lortu du Erregional Gorenak

Ostadar SKTko taldeak partida gogorra jokatu du Rotetaren aurka. Atsedendian 0-2 galtzen joan arren, partida berdindu du etxeko taldeak. Egun igoera multzoko azken sailkatua da talde urdin-beltza; edozer gerta daitekeela adierazi du entrenatzaileak

Txintxarri

Ostadar Erregional Gorenak partida zailari aurre egin behar izan zion igoera faseko jardunaldian. Roteta aurkari gogorra izango zela jakitun ziren Ostadarreko kideak; aurreko jardunaldian multzoko buru den Zumaiako garaitu zuen.

Zelaira atera bezain laster donostiarren balioa ikusi zuten urdin-beltzek. "Talde sendoa eta ausarta zela eta aurrean dinamita zuela ikusi genuen", aipatu du Raul Rodriguez prestatzaileak.

Erritmo handia ezarri zuen Donostiako taldeak eta bigarren minutuan aurreratu zen markagailuan. Ostean, aukera ugari sortu zituzten bi taldeek. Baina garbienak Rotetak izan zituen. Esate baterako, 20. minutuan, sartu ez zuten penaltia, eta bost minututara, bigarren golean amaitu zen eraso. "Guk aukerak sortu arren, ate aurrean ez genuen zortetik izan. Horrek ez zuen animoetan lagundu", onartu du Rodriguezek.

Markagailua aurka izan arren, Ostadarreko jokalariek bigarren zatia ongi eta gogotsu hasteko aldeko emaitza lortzeko borrokatu ziren. Atsedendian,



Ostadarreko eta Rotetako jokalariek, baloiarengatik borrokan. TXINTXARRI

ordea, 0-2koa zegoen markagailuan.

Bigarren zatia aurkako emaitzarekin hasi izanagatik, urdin-beltzek ez zuten amore eman eta partida berdintzea lortu zuten. Azken minutuetan bi taldeak garaipenaren gola lortzeko ahaleginetan aritu ziren. Nekeak, baina, eragina izan zuen jokalarientan eta binako berdinketarekin amaitu zen norgehiagoka.

"Taldeak lan handia egin behar izan zuen batez ere lehen 45 minutuetan. Esfortzua handia izan da eta partida amaieran neke nabaritu dute jokalariek",

azpimarratu du Ostadarreko prestatzaileak.

Eskertza taldeari

Igoera fasea hasi berri da eta azken postuan da Erregional Gorengo taldea. Alabaina, Rodriguezek azpimarratu bezala, "puntu gutxi daude taldeen artean. Partida bat irabazi eta lehen postuetan jarri zaitezke. Ezin da jakin nola amaituko den lehia. Gainera, esperantza da galtzen den azken gauza".

Horregatik, Ostadarrek gogorlan egingo duela aurreratu du. "Beste taldeei aurre egin eta partidak zail jarriko dizkiegu aurkari. Borrokatuko gara, ez ditugu neurketak oparitu inoiz. Eta sariak badauzkagu ongi etorriak izango dira".

Erregional Gorengo prestatzaileak taldeak igoera fasean egotea merezi duela uste du, "berdin dio zein postutan gauden". Eta jokalarien lana nabarmendu eta eskertu nahi izan du, "urte gogor baten eta pandemiaren etenaren ostean, igoera fasea lehiatzen ari gara. Ez da erraza hona iristea. Balioan jarri behar dugu euren lana eta eskerrak eman".

Hernani, Udaberriko txapelketako finaleko aurkari

Axier Arteaga Arteaga II.ak Promozio mailako banakako sailkapen partida jokatu du Alberdiren aurka

Txintxarri

Pilotazaleek jaialdi ederra izango dute larunbatean, 11:30etan Michelin kirol gunean. Udaberriko txapelketako bi final jokatu dira eta batean Intza Pilota Elkarteko Jubenil 2. mailako bikotea izango da protagonista. Haritza Diaz de Gereñuk eta eta Peru Urdanpilletak osatutako bikoteak Hernani izango du aurkari.

Bigarren neurketa izango da jubenil 2. mailakoa. Lehenik kadete 3. mailako finala jokatu da Lagunak eta Murumendi izango dira aurrez aurre.

Bi aste izan dituzte Intzako jubenilek partida prestatzeko. "Finala jokatzeko gogoz daude", azaldu Intzako prestatzaile Jose Felix Solanok.

Partida gogorra eta berdindua aurreikusten dute Intzako kideek. Ligan ezin izan zuten Hernaniren aurka jokatu, jokalarietako bat gaixo zegoen eta. Ligako gainerako partidak eta finalaurrekoa dituzte, beraz, Hernaniko bikotearen maila neurtzeko. Finalaurrekoan, esate baterako, Aretxabaleta 1 erraz garaitu zuen Hernanik, 22-12. Intzak Ligan emaitza bera lortu

zuen Aretxabaletako bikotearen aurka.

Finalak errazak ez direnaren jakitun, "partida ona egin beharko dugu. Ongi hastea funtsezkoa izango da. Presioa ongi eramatea espero dut", onartu du Solanok.

Promozio txapelketa

Profesional mailan Axier Arteaga Arteaga II.ak ere neurketa garrantzitsuari aurre egin beharko dio.

Promozio mailako banakako txapelketa jokatzeko sailkatze fase bat egin du Baiko pilota enpresak eta herritarrak bi partida jokatu beharko ditu lehiaketan parte hartu ahal izateko. Lehenean, hilaren 25ean, Alberdi izango du aurkari. Partida irabaziz gero, Bakaikoarekin neurtu beharko ditu indarrak.

Pausoz pauso doa herritarra eta Alberdiren aurkako partida du buruan. "Nahiz eta azken asteetan eskuetan arazoren bat izan, ondo iritsiko naiz neurketara. Gogotsu nago partida on bat egin eta irabazteko", onartu du Lasarte-Oriako pilotariak.

Gesalaga Okelan Zarautz taldeek zortetik ez dute izan

Ohorezko B mailako taldeak ederki borrokatu arren, Universitario Bilbaok lortu du garaipena bi punturengatik

Txintxarri

Euskal Ligako jardunaldiaz gozatu ahal izan zen hilaren 19an, Michelin kirol gunean. Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT taldeak, ordea, ezin izan zuten sailkapen buru den Baztango Menditarren aurka ezer egin, 7-63. Aurkaria nagusi izan zen arlo guztietan eta beltzek entsegu bat eta gauzatze bat besterik ezin izan zituzten egin. Entsegua David Vega herritarrak egin zuen.

Ohorezko mailan ere ez zen zortetik izan. Universitario Bilbaoren aurkako neurketa berdindua izan zen. Bi taldeen

defentsa lanari esker, atsedendira 8-6 iritsi ziren. Nahiz eta markagailuan zigor kolpeei esker aurretik mantendu, bilbotarrek 19na berdindu eta aurre hartzea lortu zuten, 22-24. Azken minutura arte garaipena bilatu zuten beltzek, baina ez zen posible izan. Eta jaitsiera jokatzeko postuetan dago taldea.

Bestalde, Jon Ibisate herritarrak Nazional Mailan egin zuen debuta epaile modura. 23 urtez azpiko ligako Getxo Etorkezuna eta Fénix C.R. Zaragoza taldeen aurkako norgehiagoka epaitu zuen.

Hondarribiak Zorrotzaurreko bandera irabazi du

Urtarrilean hasi da denboraldi-aurrea eta proba ugari jokatu dituzte traineruek, hala nola Hondarribiko jaitsiera

Txintxarri

Intza Fernandez herritarra kide duen Hondarribiko trainerua Zorrotzaurre irlako II. estropadan nagusi izan da eta denboraldi-aurreko lehen bandera jaso du Bilbon.

Bost eskifaiek parte hartu zuten proban -Hondarribia, Deustu, Portugalete, Ondarroa eta

Zarautz- eta berdeak izan ziren azkarrenak, 21.07,98.

Uda iritsi eta ETE, ARC, Eusko Labek zein Euskotren Ligak hasi bitartean, traineruak denboraldiko prestaketetan murgilduta daude.

Urtarrilean hasi ziren lehiak Portugalteko jaitsierarekin. Oriako jaitsiera zein Hondarribiko



Hondarribiako kideak, banderarekin.


HONDARRIBIA A. E.

jaitsiera ere jokatu dira. Azken horretan, Aiora Belartietak herritarra kide duen Donostia Arraun Lagunak eskifaiek bigarren postua eskuratu zuten.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Manex
ZORIONAK laztana!
Ilusio eta maitasunez
beteriko eguna iritsi da.
Gozatu eguna, asko
maite zaitugu!



Lur
Zorionak bihurri!!
Prestatu bost kandlei
putz egiteko!! Muxu
handia guraso, Haitz
eta familiaren partetik!

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 25	DE MIGUEL	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 26	DE ORUE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 27	DE ORUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 28	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 29	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 30	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 31	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:	LARRIALDIKO TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29	OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84	DYA: 943-46 46 22
KIROLDEGIA: 943-37 61 82	GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81	UDALTZAINAK: 943-36 24 42
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79	ERTZAINAZA: 943-53 88 40
KIUB: 943-36 16 05	SOS DEIAK: 112
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21	
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33	

OHARRA

22. Korrikako produktuak eta petoak salgai

Muntteri-AEK euskaltegiko kideek ezagutarazi dute dagoeneko eros daitezkeela 22. Korrikan parte hartzeko petoak, bost euroan, eta baita material gehiago ere: kamisetak, jertseak, bisera...

Horretarako Muntteri-AEK euskaltegira, Geltoki kalea 17 zenbakira hurbildu behar dira horietako produktu edo petoak erosi nahi dituzten herritarrek.

Algarve eta Cadizeko kostaldera bidai

Biyak Bat elkarteak Portugalgo Algarvera eta Cadizeko kostaldera bidai antolatuta du. Irteera maiatzaren 25etik ekainaren 5era izango da.

Bidaiaren prezioa 740 eurokoa da elkarteko kideentzat; bazkide ez diren pertsonak 820 euro ordainduko dituzte. Logela individuala nahi dutenek 230 euroko gehigarria izango dute.

Interesa duten pertsonak bulegoko ordutegian (10:30-12:30) eman behar dute izena. Plaza erreserba egiteko 350 euro ordaindu behar dira.

Heriotzen berri eman

Inguruko norbaiten heriotzaren berri TXINTXARRI-n eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali hauraren
izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

ESKUTITZA

PUTIN, GO HOME!**KIKE INTXAUSTI**

Hiru milioi errefuxiatu; herrialde bat suntsituta, bonbak eta bonbak. II. Mundu Gerratik Europan izan den tragediarik handiena. Gernika! Nazioarteko harremanetan badaude printzipioak ere. Herrialde batek ez du eskubiderik beste bat militariki inbaditzeko. Herrialde batek ezin du bereganatu beste herrialde independente eta subirano baten lurraldearen zati bat. Herrialde batek ez du beste bat bonbardatzeko eskubiderik.

Uste dut inbasio eta jabetze horien aurka egin dugula beti, eta errusiarren inbasioaren aurka ere tinko agertu beharko genukeela. Haatik, isiltasun moduko bat sentitzen dut nere hurbileko sare sozialetan eta prentsan Ukrainari dagokionez. Ez da mobilizatzeko deirik izan, ezta gaitzespen argi eta zorrotzik ere.

NATO eta mendebaldeko inperialismoari ere errua botatzen zaio eta horrek erdibidean jartzen gaitu, beste

aldera begira tragediaren aurrean. Ordea, hemen erasotzaile bakarra dago, Putin eta bere Z. Inperialismo garbia eta gogorra da. Eta ez da lehen aldia. Ukraina ez da NATOkoko kide; ez dago NATOkoko soldadurik borrokan Ukrainan, eta ez dago NATOkoko hegazkinik Mosku bonbardatzen. Bakezaleak bagara zoritxarrekoak dira gerra guztiak eta antiinperialistak bagara kriminalak dira inbasio guztiak. Ez al diogu Ukrainako inbasioari kontra egin behar, Irakekoari eta beste zerrenda luze bati egin genion bezala?

Uste dut ez dagoela aitzakiarik. Prebentziozko erasoak? Errusia Handia? Desnazifikazioa? Hizkuntza-politika? Krimearen edo Donbassen autodeterminazio edo anexio-eskubidea? Ukrainak, beste edozeren gainetik, askatasunean bizitzeko eta mendebaldeko demokraziekin harremanak ezartzeko gogo bizia du. Hori bere eskubidea da. Horixe izan zen Euromaidana.

NATOn zabalpena ezin da aitzakia izan, ez baitu indarrez egin. Herrialdeak dira NATOn sartzea eskatzen

dutenak. Harresia erori zenetik hona, NATOn sartzea eskatu dutenek babes bila egin dute, Errusiaren eta Sobietar Batasun ohiaren moduen eta portaeren beldur.

Beraz, Z, PUTIN, GO HOME!

Eta gogora dezagun Gorbatxov, kolpe militarra jasan eta dimisioa eman behar izan zuena:

“Gerra Hotza amaitu dugu, karrera armamentista eta herrialdearen militarizazio zoroa gelditu dira, gure ekonomia, gure kontzientzia soziala eta gure moralak desitxuratu zituena. Mundura ireki gara eta konfiantzaz, elkartasunez eta errespetuz erantzun digu”.

Badirudi militarismo batek eta besteak, inperialismo batek eta besteak, gerra hotzera garamatzala. Zoritxarra! Armagabetzea behar dugu, ez berrarmatzea, nazioarteko lankidetzeta eta muga irekiak eta seguruak behar ditugu. Europar Batasunak du hitza.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

inmolasarte
 Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. **Esku onetan zaude!**

943-53 64 81 | 629 63 18 38
 Iñigo de Loloia, 2 behe.
 LASARTE-ORIA
 info@inmolasarte.com

SALDU

Marina D'O r urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

ALOKAIRUA

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak

aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663935176 (Irati)

LANA

ESKARIA

Pertsona eskaintzen da interna modura lan egiteko. Esperientzia dut eta berahala hasteko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Interna moduan lan egiteko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Etxeko lana egin edota adineko pertsonak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 611 27 27 72.

Lan bila nabil. Hoteletan garbiketa lanak egiteko, edo etxeetan. Pertsonak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak. Harremanetarako zenbakia: 671 76 35 58.

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egin dut. Interno edo orduka lan egiteko nuke.

Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egiteko nuke. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egiteko nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Eskola partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko saioak emateko eskaintzen dut nire burua, bainta Administrazioa edo Enpresa Zuzendaritza ikasten ari direnei ere.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO


TEL: 943-37 14 48
 edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
 ► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
 Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

SALEROSKETA
 SALDU
 Eskiak eta helduentzako botak saltzen ditut. Interesa duenak dei dezala 605 70 57 89 zenbakira.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
 Maddi Zaldua eta
 Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
 Maitane Rebe, Julen Basterra,
 Nerea Segura, Liemii Rekondo
 eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide
 Hidalgo, Nahia Fabian, Julene Iraola,
 Egoitz Epelde, Sergio Hernandez,
 Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
 Tel.: 943-37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

LASARTE-ORIA Antzerkia
Azken urteetako ohiturari jarraituz, Kukuka eskolak Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatuko du larunbat honetan, hilak 26. Horretarako, topaketak prestatu ditu: tailerra, haurrentzako antzerkia eta bakarriketa banarekin osatu du egitaraua. Sasoteko gimnasioan, 10:00etatik 11:30era, familientzako antzerki tailerra. Parte hartu nahi dutenek 655 84 73 45 telefonora dei edo kukuka@kukuka.eus helbide elektronikora idatz dezakete. Okendo

plazan, 12:00etan, haurrentzako antzerkia. Patata Tropikala antzerki laborategiak *Pirata Garrapataren abenturak* antzeztuko du. Jalgi kafe antzokian, 18:30ean, bakarriketa. Bea Egizabal umoristak *Magma mia!* ikuskizuna emango du. Helduei zuzendutako emanaldia da. Martxoaren 26an, herriko hainbat lekutan, goizetik arratsaldera.

OSTIRALA 25

LASARTE-ORIA Erakusketa

Sara Etxeberria Zapirain *Basoko Maxuxta* artista lasarteoriarrak *Bideak* izeneko erakusketa jarri du Agora tabernan, hiru bat hilabetez. Agora taberna, Kale Nagusia 8, egun osoan zehar.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Arima izeneko ikuskizuna taularatuko du Amaia Elizaran interpreteak. Sarrerek 5,50 euro balio dute. XVII. Dantza Zirkuituaren barruko emanaldia da.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Jaia

Garagardo artisauen dastaketa antolatu du Lasarte-Oriako Extremadura Etxeak: bost garagardo eta bost pintxo emango dituzte. Bazkideek 15 euro ordaindu behar dituzte, eta ez bazkideek, berriz, 18. Parte hartu nahi dutenek, 681 22 17 59 telefono zenbakira deitu behar dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Extremadura Etxea, 20:00etatik 23:00etara.

LASARTE-ORIA Jaia

30 urte bete dituela ospatzeko,

Semblante Andaluz elkarteak barrikotea egingo du Atso Bakar auzoko egoitzan. 30 euroren truke, menu hau dastatuko dute herritarrek: bakailao tortilla; bakailao frijitua piperrekin; txuleta; gazta, irasagarra eta intxaurrak; eta kafea. Aforoa 80 pertsonakoa izango da.

Extremadura Etxea, 20:00etatik 23:00etara.

LARUNBATA 26

HERNANI Kontzertua

Hernaniko XV. txistulari gazteen txapelketa antolatu dute. Goizetik arratsaldera arteko jarduera izango dela iragarri dute. *Milagrosa kapera*, 11:00etatik 18:00etara.

LASARTE-ORIA Dokumentala

Okendo Zinema Taldeak euskal dokumentalen zikloa antolatu du. Laugarren ikus-entzunezkoa *Tipularen sehaska kanta* da. Sarrerek 6 euro balio dute. Manuel Lekuona kultur etxea, 20:00etan.

ASTIGARRAGA Kontzertua

Ainhoa Larrañaga musikariak emanaldia eskainiko du. Helduentzako sarrerek 8 euro balio dute eta haurrentzako 4 euro. Erribera kulturunea, 20:00etan.

USURBIL Kontzertua

Kaleko Urdangak eta Unidad Alavesa musika taldeek emanaldia eskainiko dute. Sarrerek aldeztuak erosi behar dira, usurbilkultura.eus atarian; 10 euro balio dute. Aginagako Eliza Zaharra, 22:30ean.

IGANDEA 27

LASARTE-ORIA Dantza

Plaza dantzako kideak Okendo plazan elkartuko dira muxikoak dantatzeko. Okendo plaza, 12:00etan.

ASTIGARRAGA Antzerkia

Anita maravillas konpainiak *Kotondarrak* lana eskainiko du. Adin txikikoentzako sarrerek 3 euro balio dute, eta helduentzako, 6 euro. Okendo plaza, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Buscando a la mágica Doremi filma proiektatuko dute. Sarrerek 4 euro balio dute. Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak euskal dokumentalen zikloa antolatu du. Bosgarren eta azken ikus-entzunezkoa *Aita Mari* izango da. Manuel Lekuona kultur etxea, 20:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUELLEKUONA

'Buscando a la mágica Doremi'

Igandea 27
17:00.

'Aita Mari'
Igandea 27
19:30.

HERNANI

BITERI

'Un pequeño contratiempo'
Ostirala 25
22:30.

Larunbata 26
19:30.
Igandea 27
19:30.

'Ron da error'
Larunbata 19
16:30.
Igandea 20
16:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Código emperador'
Larunbata 26
19:30.

Igandea 27
19:30.

'Super... ¿Quién?'

Larunbata 26
17:00.

Igandea 27

USURBIL

URBIL

'Ainbo: La Guerrera del Amazonas'
Ostirala 25
15:45.

Larunbata 26
12:05, 15:45.
Igandea 27
12:05, 15:45.
'Camera café, la

película'

Ostirala 25

15:50, 18:10,
20:20, 22:40.

Larunbata 26
12:10, 15:50,
18:10, 20:20,
22:40.

Igandea 27
12:10, 15:50,
18:10, 20:20,
22:40.

'Código emperador'
Ostirala 25

15:45, 19:05,
20:10, 22:25.

Larunbata 26
12:05, 15:45,
19:05, 20:10,
22:25.

Igandea 27
12:05, 15:45,
19:05, 20:10,
22:25.

'Los tipos malos'

Ostirala 25

12:00, 16:05,
17:00, 18:00,
18:40, 19:35.

Larunbata 26
12:00, 16:05,
17:00, 18:00,
18:40, 19:35.

Igandea 27
12:00, 15:55,
18:00, 18:30,
21:05.


'Malnazidos'
Ostirala 25

16:30, 21:40.

Larunbata 26
16:30, 21:40.

Igandea 27
16:30, 21:40.

'Spider-Man: No way home'
Ostirala 25



LABURPENA

'Código emperador'

Zuzendaria: Jorge Coira. **Gidoia:** Jorge Guerricaechevarria. **Argazkia:** Pablo Rosso. **Ekoizleak:** Vaca Films, The Playtime Group, Sábado Películas, Netflix, RTVE, Televisión de Galicia. **Herraldea:** Espainia (2022). **Iraupena:** 105 minutu. **Generoa:** Intriga, thrillerra. **Musika:** Ixavier Font, Elba Fernandez. **Aktoreak:** Luis Tosar, Alexandra Masangkay, Georgina Amorós, Denis Gómez, Miguel Rellán, Laura Domínguez, María Botto, Fran Lareu, Arón Piper, Juan Carlos Vellido, Santi Prego, Erik Novák, Patirke Mendiguren.

Zerbitzu sekretuetako langilea

Juanek zerbitzu sekretuentzat lan egiten du; arma-trafikoa parte hartzen duen bikote baten txaleterako sarbidea izateko, Wendyrengana hurbiltzen da, etxean bizi den laguntzaile filipinarrarengana, eta gero eta gehiago katramilatzen da berarekin duen harremana. Aldi berean,

Juanek beste lan ez-ofizial batzuk egiten ditu herrialdeko eliterik boteretsuenen interesak babesteko, orain Angel Gonzalezen jarri baitituzte begiak, itxuraz anonimoa den eta trapu zikinak bilatu edo asmatu beharko dituen politikari batengan.



ORIARTE

Institutua

2022-2023 IKASTURTEA

Izen ematea
martxoaren 28tik
apirilaren 8ra

Zientziak eta
Teknologia

Giza eta
Gizarte Zientziak

Eskaera online zein
ikastetxean egin
daiteke.



info@oriarte.eus
Buenos Aires aldapa, 1 | 20160 LASARTE-ORIA |
TEL.: 943-89 94 94 - 943-89 94 92
www.oriarte.eus



600 85 75 86 
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
 (on-line denda)

Udaberria iritsi da! Gozatu eguraldi ona!

**SU PLAKAN
JARTZEKO
PARRILAK**
Neurri
ezberdinetan



**PARRILA
ELEKTRIKOAK**



**PARRILA
ELEKTRIKOA**
Bi temperatura maila



Kale Nagusia, 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



errigora

martxoak 10 - 30

Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura

**Oinak
lurrean**

Bete ezazu
despentsa
urte guztirako



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



KORRIKA-ko zenbaki bereziak

apirilaren 1ean eta 8an





Deskontu
bereziak
herrikoentzat!

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?
Jar zaitetz gurekin harremanetan!

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66 